

UDAL ERREGELAMENDU HONEK ARAUTUKO DITU HERRIKO
ZAINDARIEN OMENEZKO JAIETAN ETA BESTE ZENBAIT
OSPAKIZUNETAN BASAURI UDALERRIAN INSTALATUKO
DIREN TXOSNAK

I. TITULUA

HELBURUA

1. Artikulua .—Helburua

Erregelamendu honen helburua da, kanpoko taberna moduan, bide publikoaren gainean jartzen diren txosnen instalazioa arautzea, horiek ez dira egonkorrak eta herriko zaindari diren San Migel eta San Fausto jaiak ospatzen direnean jarriko dira eta baita Udalak baimena eman dezakeen beste zenbait ospakizune tan.

II. TITULUA

ARAUTEGI OROKORRA

2. Artikulua .—Ezaugarri orokorrak

2.1. Mota honetako instalazioak aurretik Gizarte Ongizateko Udal Batzorde Informatiboak (Jaiak) zehaztuko toki edo tokietan bakarrik jarri ahal izango dira, eta toki horiek zehaztu ahal izateko egoki iruditutako txosten teknikoak aztertuko dituzte aurretik.

— Txosnetara destinatutako instalazioek pertsona eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko baldintza teknikoak izan behar dituzte, eta orokorrean publikoaren segurtasuna ziurtatu behar dute eta hirugarrenei enbarazurik ez die eragin behar, kasu bakoi-tzean indarrean dauden arautegien arabera, (egituraren sendota-suna eta horien funtzionamendua, prebentzioko neurriak eta sute-en aurkako segurtasun neurriak eta osasun eta higieneko baldintzak).

2.2. Kanpo aldean instalatu daitezkeen txosnen kopurua eta horien kokapena:

— Udalak/Gizarte Ongizateko Udal Batzorde Informatiboak (Jaiak), aurretik eskuartean Zerbitzu Teknikoen txostena izanik, kokapena eta kopurua zehaztuko ditu ospakizun desberdinen izaera, dagoen lekua etab. kontuan izanik. Instalazioa leku publikoa ez den eremuan jarri nahiko balitz, eskatzaileak jabearen baimena baduela egiaztatu beharko du instalazio hori jarri ahal izateko. Txosnatzat hartuko da edozein kasutan, modulu bakarreko eraikin arina edo aurrefabrikatua.

2.3. Iharduera Gizarte Ongizateko Udal Batzorde Informatiboak (Jaiak) erabakiko duen datan hasi eta amaituko da, eta horren berri interesatuei Alkatearen Dekretu bidez emango zaie, bestalde toki hartan pilatutako material oro iharduera amaitu eta 48 ordu barruan erretiratu beharko da.

2.4. Kanpoan instalatuko diren txosnek kasu bakoitzean Udalak ezarriko duen gehieneko azalera euki ahal izango dute eta instalazioak sendotasun, higie, garbitzeko erretzasun, etab. nahikoa duten materialez eraikiko dira.

3. Artikulua .—Osasun baldintzak

3.1. Urriaren 13ko 2.817/1983 Errege Dekretuan ezarritakoa, Jantoki Kolektiboetako Arautegi Tekniko Sanitarioari dagokiona, horko III. titulua «aldizkako establezimenduek bete behar dituzten baldintzak», edo horren ordezko araudian ezar daitekeena.

3.2. Guztiz debekatua dago 18 urtetik beherakoei edari alko-holdunak eta tabakoa saldu edo ematea, hain zuzen ere azaroaren 11ko 15/1988 Legean ezarritakoaren arabera, hori horrela, debeku hori ikusgai egon beharko du leku aiposean 42X330 kartelaren bidez. 16 urtetik beherakoak ezingo dute bestalde txozna barruan egon eta horko lanik egin, guztiz debekatua baitago.

3.3. Jendearen zerbitzurako egongo diren edalontziak, platerak eta antzekoak erabilera bakarrekoak izango dira.

3.4. Zabor eta hondakinak, erabili eta botatzeko poltsetan sartu eta haiek ondo itxi ondoren Udalak ezarritako tokietan, utziko dira. Behin poltsak bete ondoren ahalik eta laisterren eramango dira haiek utzi behar diren tokietara. Garbiketa biharamuneko 8ak baino lehen egin behar da.

3.5. Guztiz debekatua dago horretara destinatu gabeko zonalde edo lekutatik kanpo edozein material metatzea.

3.6. Jangaiak, edozein izanik ere, ezingo dira lurra ukitzen dutela utzi.

3.7. Instalazioak sabaia emanda euki behar du eta egokiro argiztatua egon behar du, eta bestalde, jangai eta edariak pilatzen diren edo maniatzen diren tokira jendea hurbil ez dadin, horko sarbidea eragotziko duen sistemarekin hornitua egongo da.

3.8. Txosnek nahiko edateko ura izango dute, hori harraska eta/edo konketara loturik egongo da tresneria garbitu eta lanean dabilen jendearen garbitasuna bermatzeko.

3.9. Hustubideek estolderia-sarera loturik egon behar dute.

3.10. Janariak maneiatzen diren tokiak, material lauzkoa, bizigabea, ez zurgatzailea, eta garbitzen eta desinfektatzen erraza izan behar du.

3.11. Zamalanak jendearentzat ireki gabe dagoen ordutegian egin beharko dira eta beti 12:00ak baino lehen.

3.12. Janari eta bazkariak prestatzen ibiliko diren pertsonen Janariak Maneiatzeko Agiriaren jabe izan behar dute (2505/1983 Errege Dekretua eta 1989ko martxoaren 7ko Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailaren Agindua). Halaber, langile horiek norberaren garbitasuna eta beren arropena zaindu beharko dute, eta bestalde iharduera horretarako egokia den tresneria erabili behar-ko dute.

3.13. Turismoari buruzko Legearen, Ikuskizun Publiko eta Dibertimenduzko Iharduerari buruzko Legearen eta Ostalaritzako Hitzarmen Probintzialaren eta Foru Aldundiaren arabera, I.E.Z. (Ihar-duera Ekonomikoen gaineko Zerga) zergaren erroldan sarrera eskatu beharko da.

3.14. Bozgorailu eta musika-instalazioek sortutako oihartzun-maila kontrolatzeko potentzia mugatuko duen mugatzaile bat jarri beharko da, modu

horretan indarrean dagoen arautegian ezarritako oihartzun-maila ez gainditzeko xedez.

3.15. Musika instalazioa ezingo da erabili hurrengo kasu hauetan:

- Su artifizialak ospatzen direnean.
- Jaietaz arduratzen diren udal arduradunek horrela eraba-kitzen badute, dauden iharduereen eta jai-egitarauen arabera.

3.16. Jaietan euskara bultzatzeko xedez, jarriko duten musika hizkuntza honetan abestutakoa izan dadila eskatuko zaie, ahal den neurrian.

4. Artikulua .—Merkatal eta segurtasun baldintzak

4.1. Janari eta edari desberdinek jendearentzat euki behar dituzten prezioak ongi ikusiko den kartelean jarriko dira. Aipatu prezioak txosna guztietan berak izango dira.

4.2. Txosnak isteko ordutegia bat etorriko da gaujaia amaitzen den unearekin.

4.3. Isteko ordua baino ordu erdi lehenago megafoniak funtzionatzeari utzi beharko dio.

4.4. Txosna jartzeko baimena eman zaien kirol, kultur eta gizarte taldeek, iharduera hasi aurretik, erantzunkizun zibileko aseguru poliza sinatu beharko dute, eta horren zenbatekoa ezingo da azaroaren 10eko 4/1995 Legean ezarritakoa baino txikiagoa izan, lege horrek arautzen baititu Ikuskizun Publikoak eta Dibertimenduzko Iharduerak.

4.5. Txosnan jarriko diren errotulu eta ohar guztiak elebidun egon beharko dira.

5. Artikulua .—Baldintza sozialak

5.1. Basauriko Udalak erabaki du, txosnak instalatzeko baimena emanaz izapidetzen den lizentziak ez duela zergatik bide publikoa okupatzearen Zerga Ordenantzetan ezarritako tasa edo eskubiderik ordaindu beharrik, zeren eta ulertzen baita, aipatu instalazioak ez direla iharduera pribatua garatzeko helburuz jartzen, baizik eta udalerriko jaien barruko zerbait direla. Horren ordainetan esleipendunek ospakizunetan partehartzeko obligazioa dute eta beraz ekintza kultural eta kirolezkoak antolatu beharko dituzte, jendeak horietan partehartzeko aukera izan dezan.

5.2. Edozein modutan ere iharduerek jai egitarau ofizialera moldatu beharko dute edo Jai Batzordeak baimendu ondoren egitarau horretan sar daitezkeen aldaketen kariatara egokituko dira.

6. Artikulua .—Eskariak

6.1. Txozna bat instalatzeko eskaria izaera pribatuko edozein pertsona pribatuk egin ahal izango du, baldin eta hurrengo baldintzok betetzen baditu:

- Elkarteen Erregistro Orokorrean legalizatutako Erakundea izatea.
- Bere egoitza Basaurin izatea.
- Bere helbururik garrantzitsuenak kirolezko, kulturalerako edo gizarte-ekintzarako proiektu edo egitasmoak finantziatzea izan dadila eta ez dezala irabazi asmorik izan, edo udalerria gainditu-ko duten egitasmoak garatu ezker, Gizarte Ongizateko (Jaiak) Batzorde Informatiboaren iritziz, horiek udalerrientzat gizarte-interes berezia izatea.
- Eskaria egin aurreko bi urteetan gutxienez, udalerrian ihar-duerak egina izatea.

6.2. Eskaria Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko da, eta hori aurkeztu beharko da, iharduera noiz hastea eskatzen den kontuan izanik, hilabete lehenago, eta eskaria egin beharko da erakundeak baimendutako pertsonak sinatutako idatziaren bidez.

6.3. Eskariarekin batera, udalerrian garatu nahi den proiektu, egitasmo edo eskaini nahi den zerbitzuari buruzko txostena aurkeztu beharko da, hain zuzen ere txostena irabaziekin finantziatu nahi direnei buruzkoa, hala nola muntatu nahi den instalazioaren krokisa. Elkarre edo Erakunde bakoitzak eskari bakarra egingo du eta ondorioz baimen bakarra lortu ahal izango du.

6.4. Ondoren txostnaren ondorioz sortu diren irabaziak aurretik aurkeztutako zein egitasmo edo proiektutan erabili diren dokumentu bidez egiaztatu beharko da, hori Gizarte Ongizate Arloan aurkeztuko da eta sei hilabeteko epearen barruan. Horrela ez balitz egingo, nahiko arrazoia izango da hurrengo ekitaldian lizentziarik ez emateko.

6.5. Esleipen orduan jarraitu beharreko irizpideei dagokionez, aurkeztutako eskarian hurrengo baldintzok zenbaiterainoko neu-rrian ematen diren kontuan hartuko da:

- Eskaria egiten duen erakundeak zenbateko jarraipena, egonkortasuna eta kaudimena eskaintzen duen begiratuko da, dela hori arlo kulturallean, dela

kirolekoan dela gizartekoan bere iharduera garatzeko garaian.

- iharduera horiek garatzeak zenbaiteraino laguntzen duen udalerrian kultura, kirola edo gizarte-ongizatea bultzatzen.
- Erakundearen egitasmo edo ihardueren ondorioz, gutxi-gorabehera zenbat pertsonen izango dituzten onurak.
- Egitasmo edo proiektuaren ezaugarri eta berezitasunengatik, Gizarte Ongizate Arloaren (Jaiak) begietara bereizgarriak badira.
- Berdinketak zozketaz erabakiko dira.
- Esleipena, iharduera hasi aurretik gutxienez 15 egun lehenago, egingo da.

6.6. Erakunde politiko eta sindikalek ezingo dute mota honetako instalaziorik jarri.

7. Artikulua.— Esleipendunak aurkeztu behar duten dokumentazioa

7.1. Txostnaren instalatzeko tokiak behin esleitu direnean, 10 eguneko epean Udaletxean hurrengo dokumentuak aurkeztu behar dira:

- 15.000 pezetako fidantza eratu dela egiaztatuko duen agiri-ria, txostna jarriko den lekua garbituko dela eta Ordenantza honetan ezarritako obligazioak beteko direla ziurtatuko duena.
- Instalazioak, segurtasunezko, sendotasunezko eta osasun betebeharrak betetzen dituela eta instalazio osagarriak (elektrizitate, edateko ura, etab.) badituela egiaztatuko duen agiri-ria, hori eskumena duen/duten teknikoek sinatua egongo da.
- Erantzunkizun zibileko polizaren fotokopia eta azken errezibua.
- Argiaren lotunea egiteko baimena
- Janariak maneiatzeko karneta (bere kasuan)

7.2. Behin instalazioa egin ondoren Udalak berari dagozkion ikuskapen tekniko- sanitarioak egingo ditu, modu horretan, eskatzen diren betebeharrak guztiak betetzen direla egiaztatu ahal izateko.

7.3. Eskatutako dokumentazio guztia ez balitz aurkeztuko ez litzioke baimenik emango. Baldin eta Udaleko zerbitzu tekniko-sanitarioek, ikuskapena egin ondoren, aurkako txostena emango balute, 24 orduko epea emango litzaioteko egoki diren aldaketak egiteko, baina aldaketa horiek ez balira egingo baimenak indarra galduko luke.

7.4. Esleipendun bakoitzak ordezkari bakarra izendatu behar du Udalaren aurrean, eta horrek uneoro erraz aurkitzeko moduan egon behar du.

III. TITULUA

ARAU ESPEZIFIKOAK

8. Artikulua.—Auzoetako jaiak

Basauriko auzo desberdinetako jaietan, kanpoan txosnak «jaietako batzorde antolatzaileek bakarrik jarri ahal izango dituzte», hala ere aurrekoetan bezala Udalarari eskatu beharko diote baimena, horrek egoki baleritzo bere onespena eman diezaion, eta kasu horretan, mota honetako instalazioetarako Ordenantza honetan ezarritako obligazio guztiak bete beharko dituzte. Txosna horiek arautegi honetako 6. artikulua agintzen duenetik salbuetsiak izan daitezke, baina hala ere beren eskaria ihar-duera hasi aurretik hilabeteko aurrerapenarekin egin beharko dute.

9. Artikulua.—Ospakizun desberdinak

Basauriko Alkateak kanpoaldean txosna jartzeko baimena eman ahal izango du, 48 ordu baino luzeagoa izango ez den denboraldirako, udalerrian ospakizun sozial, kultural edo kirolezkoa antolatu delako arrazoiz, eta hori antolatzen duen erakundearen mesedetan baldin bada. Baimentze horrek txosnaren kokapena zehaztuko du, eta baita zer ordutatik zer ordutara irekiko den.

10. Artikulua.—Arau-haustekak

10.1. Hutsegite arinak izango dira:

— Ordenantza honetan erabakitako ez betetze oro, ez baldin badaude behintzat larri edo oso larri bezala zehaztuta, baita hutsegitea izango da Udalak egin dezakeen edozein errekerimendu, bai baimena ematekoan bai eman ostean.

10.2. Hutsegite larriak izango dira:

- Instalazioa ezarritako ordutegitik kanpo irekitzea.
- Zarata-maila handiegia.
- Udalak egin nahi dituen ikuskapen eta kontrolei ezezkia eman edo eragozpenak jartzea.
- Bi hutsegite arin egitea.

10.3. Hutsegite oso larriak izango dira:

— Instalazioa udal baimenik gabe irekitzea.

- Kokapeneko lekua ez errespetatzea edo instalazioa jarri eta kentzeko mugaegunak ez errespetatzea.
- Edariak beirazko ontzietan eskaintzea.
- Ondasun publikoei kalte larriak eragitea, direla horiek era-bilerazkoak, direla zerbitzuzkoak edo direla ondarezkoak.
- Bi hutsegite larri egitea.
- Dagokion txosnari esleitutako titularitatea aldatu edo besterenganatzea, edo haren ustiaketa lagatzea, bai bere osotasunean bai zati batean.
- Instalazioari, aurrikusi edo baimendu gabeko erabilera, ematea.
- Osasun neurriak haustea, osasun publikoari arrisku larria eragin diezaiokeen moduan.

11. Artikulua.—Zigorrek

11.1. Aurreko puntuan azaltzen diren arau-hausteei buruzko zigorrek, indarrean dagoen Erregelamendu zigortzaileari jarrai-ki, Alkateak ezarritako ditu, hala ere aurretik horretarako izendatuko den instruktoarek txostena eman beharko du legeak agintzen duen arabera eta interesatuari audientzia eman beharko zaio, horri buruzko dosierraren berri edozein modutara Gizarte Ongizate, Osasun eta Kontsumoko Batzorde Informatiboari eman beharko zaio.

11.2. Hutsegite arinengatik ezarritako den zigorrek fidantzaren % 50a galtzea ekarriko du.

11.3. Hutsegite larriengatik ezarritako den zigorrek fidantzaren % 100a galtzea ekarriko du.

11.4. Hauek dira hutsegite oso larriengatik jarritako diren zigorrek:

— Fidantza guztia galduko da eta gainera hurrengo neurriren bat aplikatuko da:

- a) Baimenaren eta lizentziaren baliogabetzea.
- b) Hiru urteko epealdian txosna instalatzeko debekua.

11.5. Egoki baleritzo gainera, Udalak beste erakunde aginpidedunen aurrean salaketak jarri ahal izango ditu arau-hauste horienengatik. Zigorretatik aparte, Udalak fidantzatik deskontatu ahal izango du berak utzitako materialei dagokien zenbatekoa, material hori ez itzultzearen edo kalteturik itzultzearen; Udalak halaber, txosnak jartzeagatik, txosna horren funtzionamendu eskasagatik edo kale garbiketa egin behar izatearren ordezkari egikaritzailerik bezala, egin behar izan dituen

ordainketak eta jasan dituen gastuen ordai-nak deskontatu ahal izango ditu; eta orokorki deskontatu ahal izan du baita kalteengatiko edozein indemnitazio, eta guzti horrek ez dio kalterik eragiten egoki ikusitako edozein egintza aurrera eramateko.

Kalteen kopuruak fidantzan jarritakoa gainditzen badu, egoki diren egintzak egingo dira kalteari dagokion kopuru osoa kobratu ahal izateko.

11.6. Udalak bere gain hartzen du iharduera denbora baterako eta kautela- -moduan isteko ahalmena akatsak konpondu arte, baldin eta uste badu eskatutako baldintzak ez direla betetzen, baldin eta instalazioak arriskua izan dezakeela edo eskatutako osasun-neurriak haustearren osasun publikoarentzat arrisku larria ekarri dezakeela ulertzen badu, guzti hori hala ere egotzi lezaizkiokeen zehapenak jartzeaz gain udalak duen eskumena da.